

MUGIKORRA NEKAZARITZA SEKTORERAKO ERE ERABILGARRIA DA

Posted on 23/04/2015 by Naider

Telefono mugikorra enpresa munduarekin edo zerbitzuen sektorearekin lotu izan dugu beti. Baina zer gertatzen da nekazaritza? Kanpora atera eta jendeari langile horientzako tresna baliagarrien zerrenda eskatuko bagenio, inork ez luke mugikorra aipatuko. Egia esan, akats bat da, izan ere, [Melinda Gates](#) azaltzen digu bideo honetan, izugarrizko balioa izan dezake eta gehiago nekazariak biztanleriaren %70 diren Afrikako herrialdeetan.

Mendebaldean, nekazariak teknika ugari ezagutzen dituzte, baina Afrikan bilketak txikiagoak izan ohi dira, mekanismo asko ezezagunak direlako. Bertan mugikorrak bere lehen funtzioa betetzen du, errotazioa bezalako teknikak ikusi eta ikas ditzaketelako eta jakin zer landu behar dugun bizi garen urtaroaren arabera. Baina ez hori bakarrik, eguraldiaren iragarpenak eta produktuen merkatuko prezioen gorabeherak ere aztertu ahal izan dituzte mezuen bidez.

Bankuek ezin dute edo ez dute nahi hain pobreak zerbitzatu eta ez dute lan egiten hain diru transakzio txikiekin. Hona hemen mugikorra berriro ere jokoan, [Banku Digitala](#) nekazariak euren transakzio txikiak egin eta dirua kosturik gabe eta segurtasunez aurrezteko. Telefonoaren erabilera berdintasunean ematen den bitartean, bai gizona bai emakumeei, hazkunde ekonomikoari eta sozialari egindako ekarpena bidezkoagoa eta eraginkorragoa izango da.

There are no comments yet.